

BALIOEN PROPOSAMENA

Enpresa baten balioen proposamena enpresak bezeroei eskaintzen dien balio bakarra eta esanguratsua da, bere produktuak edo zerbitzuak lehiakideengandik bereizten dituen. Hau da, zergatik erosi edo aukeratu beharko luketen enpresa hori eta ez beste bat. Hau azaldu ondoren, zein den gure enpresaren balioen proposamena azalduko dugu.

Gure enpresa HarreGazte du izena, Gasteizko Lovaina auzoan kokatuta dagoena, Frantzia kalean. Gazteen eta familien behar psikologiko eta sozial bat asetzea du helburu. Behar hori asetzeko modua bi jarduera nagusiren bitartez aurrera eramaten dugu, lehenengoa aisialdirako esperientzia edo jarduera desberdinen bitartez jendea ezezagunekin harremanak egin ditzaten eta, beste aldetik, eskaintzen dugun beste zerbitzua da arreta psikologiko edo familia-bitartekaritzarako beharra duten familia edo gazteei zerbitzu hori eskaintzea beraien etxeko egoera hobetzeko helburuarekin.

Behar hori definitzeko esan dezakegu gure helburu nagusia dela gazteen sozializazioa sustatzea eta familiaren bizikidetzaren egokia lortzea. Han bertan gure egongo gara lokalean gure bezeroei harrera emateko eta momentu puntualetan, psikologoaren laguntza behar denean biak izango dute aukera lokalean elkartzeko. Hori guztia aipatu ondoren, esan dezakegu gure enpresaren balio nagusia kualitatiboa dela. Gure zerbitzuaren muina desberdina izatea eta bezero desberdinen beharrei egokitzea da. Horretarako esan dezakegu gure enpresak eskaintzen duen zerbitzuak hauek direla:

1. Arreta psikologikoa.
2. Familientzako formakuntzak.
3. Kontzientziazteko hitzaldiak.
4. Familiak eguna pasatzeko jarduerak.
5. Bakarka egiteko jarduerak.
6. Taldean egiteko jarduerak.

Zerbitzu horiek kontuan hartuta gure ezaugarri bereizgarrienak, dira lehiakideengandik desberdintzen gaituztenak gaituztenak, ondokoak izango dira:

1. **Pertsonalizazioa:** Erabiltzaileei zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da gure enpresaren ezaugarri bereizgarrietakoa.
2. **Prezioa:** Denei eskaintzen zaien kuota finko bat daukagu, gero plusak eta deskontuak izango ditugu jendeak nahi duenaren arabera erabili ahal izango dituztenak. Familia bateko kide asko apuntatzen direnean, deskontua handiagoa izango da, eta plusak hilabete horretan eskaintzen diren jardueren arabera izango dira.

3. **Arriskuen murrizketa:** Gure enpresaren helburu nagusia da familien eta gazteen bizikidetzaren hobetzea eta hori sustatzea horekin familia barruan sortu daitezkeen arriskuak murriztea da gure enpresaren helburu goren.
4. **Eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna:** Gaur egungo gizartean garrantzi handikoa da online eta zerbitzu presentzialak eskaintzea eta guk bi zerbitzuak eskaintzen ditugu. Online eskaintzen ditugun zerbitzuak web-orria, mugikorreko aplikazioa eta aplikazioaren barruan txata bezekoak elkarren artean hitz egiteko.
5. **Berritasuna:** Gure zerbitzua gauza berri gisa sailka daiteke merkatuan, familiei eta gazteei beren erosotasun-eremutik irteteko zerbitzua eskaintzen diegulako. Hainbat motatako zerbitzuak ditugu, hala nola laguntza psikologikoa arduratzen diren profesionalak eta gure lokalaren barruan zein kanpoan jardueraz arduratzen diren monitoreak, txango mota desberdinak barne.
6. **Lana erraztea:** Gure enpresaren helburua familia-harreman ona sustatzea da, eta, horretarako, gure zerbitzuen barruan familia-bitartekaritza eskaintzen dugu, seme-alabek beren gurasoekiko eta gurasoek beren seme-alabekiko ulermen handiagoa izan dezaten. Zerbitzu horrekin, gure ustez, etxean egiten den hezkuntza errazten edo orientatzen dugu. Horren ondorioz lana errazten dugula esan dezakegu.

Hori guztiarekin esan dezakegu gure enpresaren helburua edo balioa familien aliatua izatea da, beren loturak sendotzeko eta kide eta talde bakoitzaren garapen pertsonala familia gisa indartzeko, denboran iraungo duen komunikazio, errespetu eta elkarbizitzarako oinarri sendoa eraikiz.

Hau guztia aztertu ondoren aztertu behar dugu gure enpresaren lehiakideak eta zer egiten du gure enpresa besteengandik desberdintzeko.

Gure lehiakideek eskaintzen duten zerbitzuaren oinarria gehien bat pertsona dago eta ez dute familiari begiratzen beraien harpidetza planak pertsona zentratzen direlako. Beste aldetik gure lehiakideak ez dute familiaren egoera pertsonalari begiratzen eta ez diete bitartekaritza zerbitzurik edo arreta psikologikorik eskaintzen beraien egoera hobetzeko hori ere besteengandik bereizten gaitu. Azkenik, gure bezeroei ekintza berezi eta berritzaileak gutxienez hilabetero eskaintzen saiatzen gara gauza berriak edo desberdinak frogatzeko helburuarekin. Hau guztia da beste enpresetatik bereizten gaituen gauzak eta merkatuan nabarmentzen gaituen ezaugarriak.

